



JARRI FISKALITATEA BIZITZAREN ZERBITZURA, EZ KAPITALARENERA



Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta sinatu genuen organizazio sozial eta sindikalok aldezen dugun jendarte ereduaren erdigunea bizitza sostengatzea da. Eta 2015eko ekainaren 30ean plazaratutako Programa Sozialean esan genuen moduan, bilatzen dugun eredu aldaketa ez da bideratzerik izango zerga-politika goitik behera aldatu ezean.

Fiskalitatearen inguruko eztabaida bidegurutze batera iritsi da. EAEn eta Nafarroan erakundeek iragarri dute egungo egoera baloratu eta, behar izanez gero, aldaketaren bat egitekotan direla.

Eskubide Sozialen Kartak galdegiten du fiskalitateari buruzko eztabaida sozial zabala hasi behar dela garatzen. Haatik, badirudi erakundeek ez dutela halako asmorik. EAEn Foru Aldundiek dagoeneko esan dute euren artean adostuko dutela kontua; ez dago beste ezertarako borondaterik. Nafarroan ere ez da inolako parte hartze biderik ireki erakunde sozial eta sindikalentzat. Fiskalitateak, ordea, jendarte guztiari eragiten dio eta aurrekontu-politika baldintzatzen du; horregatik, ezin da onartu esku hartzeko aukera soilik elite politiko eta ekonomikoek izatea. Beste zerbait behar dugu, eztabaida politiko eta soziala, zerga-politika gehiengo sozialaren interesen mesedetan antolatze aldera.

Debate soziala eskatzeaz gainera, Programa Sozialeko errebindikazioei eusten diegu; gure helburua da aberastasunaren banaketa zuzenagoa ekarriko duen zerga-politika justu eta progresiboa lortzea. Hori dela eta, gure ustez beharrezkoak dira honakoak:

- Azken urteetan errenta altu eta kapitalen zergetan egin diren jaitsierak bertan behera uztea (PFEZ, Sozietateen Zerga, Ondarearen gaineko Zerga, etab.)
- Diru-sarrerara mota desberdinak modu berean zergapetzea.
- Laneko ez diren errenta guztiak preskripzio epearen barnean ikuskatzea, eta Ogasunetako ustelkeria fiskaleko kasuak garbitzea.
- Paradisu fiskaletan egoitza duten pertsona fisiko eta juridikoen jarduna eragozte.
- Zerga guztietan aplikatu beharreko araudia bertan erabakitzeko erabateko ahalmena izatea. Subiranotasun fiskal betearen eskatzen dugu, tresna fiskal guztiak ordenatu ahal ditzagun eta fiskalitate justuagoa, gure beharrezkoen egoituagoa izan dadin, kanpoko injerentzia eta inposatutako erabakirik gabe.

Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta EAeko hiru Foru Aldundiak ez dira erabakiak hartzen ari politika publikoen, aurrekontu- eta zerga-politikaren egungo orientazioa erabat alda dadin.

Fiskalitatearen inguruan nolabaiteko eztabaida piztu izana borroka sozialaren emaitza da. Honek badu bere garrantzia, baina ez da nahikoa. Begibistakoa da diru-bilketan Europar Batasuneko azken postuetan gaudela (esaterako, Sozietateen Zergan Euskal Herrian 900 milioi euro gehiago bildu beharko litzateke Europako batez besteko mailara iristeko), eta erakundeak justifikatu ezin dena zuzitzen ari direla; bitartean, patronalak are zati handiagoa lortu nahi du.

Soldatapeko ez diren errentetan dagoen iruzur fiskal izugarria dela eta ogasunek ezikusiarrena egiten dute, eta honetarako dagoen lantaldea ere Europarekin alderatuz gero irugarria da. Iruzur fiskalaren jazarpena lehentasuna izan behar da,

diru-bilketa zein zerga-sistemaren ekitatea hobetuko bada.

Gure zerga-sistemak biltzen duen diru kopurua gehitu egin behar da aurrekontuak finantzatzeko gertatzen diren zailtasunak gainditzeko, baita zerbitzu publikoetan eta babes sozialean gure inguruko herrialdeetan ohikoak diren estandarretara iritsi ahal izateko.

Krisiak kalterik handiena jendarteko sektorerik ahulenei eragin die; ondorioz, desberdintasuna eta pobrezia areagotu egin dira. Egoera honi aurre egiteko arlo publikoak birbanaketa egiteko bere esku dituen bitartekoak indartu behar dira.

Zerga-politika aldatu eta iruzur fiskalari aurre egiteko gauza bakarra behar da, borondate politikoa. Baina horretarako ezinbestekoa da patronalarekin eta botere ekonomikoekin konfrontatzea. Eta hau lortzeko bide bakarra dago, errebeldia, mobilizazio eta antolatze prozesu iraunkorrari ekitea. Prozesu honen baitan **dei egiten dugu ekainaren 8an Bilbon goizeko 11etan izango den giza-katean parte hartzera, Eusko Jaurlaritzaren egoitza aurrean hasita**. Agerraldiaren eskaria: fiskalitate justu eta birbanatzailea, gehiengo sozialaren interesen esanetara dagoena; alegia, **jar dezagun fiskalitatea bizitzaren zerbitzura, ez kapitalarenera**.

Euskal Herrian, 2017ko ekainaren 1ean